

UZ-TRAIL MENDI LASTERKETAKO I. ARGAZKI LEHIAKETA

PARTAIDEAK: Nahi duten pertsona guztiek parte hartu ahal izango dute.
Kategoriak: haurrak, 16 urte barne, eta helduak.

GAIA: 2023ko martxoaren 5eko UZ-TRAIL mendi lasterketarekin lotutako argazkiak.

AURKEZPENA: Martxoaren 8an arratsaldeko 2ak arte.

OBRAK LEHIAKETARA AURKEZTEA: Pertsona bakoitzak gehienez 5 argazki aurkeztu ahal izango du. Lanak JPG formatuan bidaliko dira, argazkielkartea@gmail.com helbidera. Lanak bidaltzeko mezu elektronikoa, egilearen datuak adieraziko dira, hala nola izen-abizenak, adina, herria eta telefonozenbakia.

- Mezu elektronikoa jaso izanaren baieztapena bidaliko da, hura jaso dela frogatzeko.
- Argazkiak edita daitezke.
- Artxiboa BEREIZMEN TXIKIAN bidali beharko da.
- Epaimahaiaren erabakia jakin ondoren, eta argazkiak inprimatzeko asmoarekin, artxibo digitala BEREIZMEN HANDIAN aurkezteko eskatuko die antolakuntzak irabazleei.

EPAIMAHAIA: Argazkigintzan ospe handiko hiru pertsona izango dira.

EPAIMAHAIAREN IRIZPIDEAK: Argazki onena baloratuko da, eta egile berak ezingo du saria jaso behin baino gehiagotan.

ERABAKIA ETA SARI BANAKETA: Erabakia hartzeko saioa eta sari banaketa jendaurrean egingo dira. Erabakia hartzeko saioa 2023ko martxoaren 17an izango da, arratsaldeko 6:30ean, Urretxuko Kultur Etxean. Sari banaketaren ekitaldia, berriz, 2023ko martxoaren 24an, Urretxuko Udaletxean, arratsaldeko 7etan.

SARIAK: Honako sari hauek banatuko dira:

- Argazki onenari:	150 € + oparia
- Bigarren argazki onenari:	100 € + oparia
- Herriko argazki onenari:	90 € + oparia
- Gaztetxoan argazki onenari:	50 € + oparia
- Gaztetxoan bigarren argazki onenari	30 € + oparia

Bide batez, saritutako argazkiak 2024ko UZ-Trail promozio-materialean erabili ahal izango dira.

Argazki lehiaketan parte hartzen duenak oinarri hauek guztiak onartzen ditu. Oinarriotan jaso gabeko gorabehera ororen aurrean, antolatzaileek izango dute azken hitza. Sariaren bat irabazitako lanak antolatzaileen esku geratuko dira. Lan guztien erabilera eta erreproduzio eskubidea beretzat erreserbatuko dute antolatzaileek, lanen jatorria aipatuz, beti ere.

ARGIBIDERIK EDOTA INFORMAZIO ZABALAGOA NAHI IZATERA, URRETXUKO KULTUR ETXEAREKIN JARRI HARREMANETAN. Telefonoa: 943 03 80 88